

IMHren 20 urteurrena Elgoibar (2010-02-03)

1989ko abenduaren 21ean sinatu zen Elgoibarko Makina-Erremintaren Institutua eratzeko eskritura; Gipuzkoako Foru Aldundiaren jargi aretoan, hain zuzen ere. Pozarren gaude, beraz, gaur, Institutuaren hogeigarren urteurrena ospatzen.

Baina beste ezertan hasi aurretik gorazarre berezia egin nahi diot Alberto Ortueta zenari; izan ere, pertsona giltzarria izan zen Makina-Erremintaren Institutuaren sorreran, hiru hamarkada luzez Makina-Erreminta Frabrikatzaileen Elkarteko, AFMko, zuzendari nagusi izan zena.

Ortuetaaren ekarpena erabakigarria izan zen makina-erremintaren sektorea sendotzeko eta nazioartean ezagutzera emateko, produkzio eta esportazio zifretan munduko lehenengo tokietara eraman baitzuen sektorea, bere ekimen nekaezinarekin.

Alberto Ortuella gizatasun handiko pertsona izan genuen, lanera zeharo emana eta herri honekin erabat konprometitua. Bere ibilbide profesional osoan, balore horiei eutsiz, izugarrizko lana egin zuen sektoreko enpresak berrikuntza, internazionalizazioa eta formazioaren bidetik eramaten.

Berari eta bera bezalako beste batzuen lan eta dedikazio eskerhari esker hogeitun urte hauek emankorrek izan dira; eredu garriak, esango nuke.

Institutu hau erreferentziatzko gune bihurtu baita, formazio teknikoan eta zabalkunde teknologikoan, makina-erremintaren sektorerako. Eta azpimarratu beharrik ez dago sektore giltzarria dela, makina-erremintarena, Gipuzkoaren eta Euskadiren ekonomiarako.

Uste dut hemen gauden guztiok ondo baino hobeto dakigula, gure enpresen lehiakortasunerako, zer garrantzitsuak diren formazioa eta ezagutzaren transferentzia. Euskadiko makina-erremintaren arrakasta horregatik gertatu da, hein handi batean: etengabe jakin duelako berritzen eta teknologia aurreratua garatzen. Apustu hori, hain zuzen ere, ez zukeen horren sendo burutuko Makina-Erremintaren Institutuaren aitzindaritzan izan ez balu.

Makina-erremintaren jarduera funtsezkoa izan da Gipuzkoako ekonomian. XX. mendearen lehenengo zatian joan zen finkatzen sektorea, arian-arian, Eibar eta Elgoibar inguruotan. Sortzez, askotan, enpresek berek beren beharretarako sortuak ziren lehenengo makina-erremintak; beren produkzio prozesuetan behar zituzten lanabesak

diseinatu eta egiten zituzten; eta gero hasiko ziren produktu horiek merkaturatzen eta saltzen, merkatuaren eskariari erantzunez.

Hirurogeiko hamarkadaren hasierarako, Euskadi mundu osoan ezaguna izaten hasi zen bere makina-erremintaren kalitateagatik. Hortik aurrera jauzi handia egin genuen, besteak beste, aitzindari izan ginelako makinerian teknologia aurreratuenak, elektronika eta informatika aplikatzen.

Gaur egun ere, sektore industrial honek berebiziko garrantzia du Euskadiren aurrerapen sozio-ekonomikorako; eta mundu osoan estimatua da, bere kalitateagatik eta berrikuntzak aplikatzeko duen gaitasunagatik.

+ + + + +

Si algún sector es representativo de la cultura empresarial guipuzcoana, éste es el de la máquina herramienta; en el que predominan empresas de tamaño pequeño y medio, competitivas en términos de calidad, costes, y capacidad técnica de desarrollo de producto, y que han vencido todo tipo de ataques y coyunturas desfavorables.

Y como muestra baste el dato de que más de las tres cuartas partes (el 78% exactamente) de la producción de máquina herramienta del Estado español tiene su origen en Euskadi y su mayor parte en territorio guipuzcoano. Igualmente el 82% de las exportaciones vascas corresponden a este sector.

Por otra parte, creo que el día de hoy es muy adecuado para una reflexión sobre el momento que vivimos. Lo nuestro no es la cultura del ladrillo. Gipuzkoa ha apostado y tiene que seguir apostando por la industria.

Nuestro país tiene que profundizar en su propio modelo y en su cultura industrial, recuperando, eso sí, valores imprescindibles de la cultura del trabajo y de la competitividad.

Es necesario profundizar de una manera renovada en nuestra vocación industrial e impulsar la competitividad del tejido empresarial y productivo de nuestro territorio, a través de la orientación a la innovación, el fomento del aprendizaje, el conocimiento y el emprendizaje y, en definitiva, la adecuación e impulso de políticas y proyectos, de acuerdo con las necesidades de las empresas y del territorio.

Euskadi se encuentra en mejores condiciones que otras economías de su entorno para retomar la recuperación, por

nuestra cultura industrial y por nuestra capacidad exportadora, que nos permitirá engancharnos a los primeros vagones del tren de la recuperación económica. Ahora bien, tenemos que incidir en la necesidad de incrementar nuestro nivel de competitividad y, para ello, necesitamos generar más valor añadido en nuestros productos y ajustar los precios.

Desde la Diputación Foral de Gipuzkoa apostamos por la adecuación de estrategias y políticas a las demandas y necesidades reales de las empresas: necesidades en materia de innovación tecnológica, procesos de gestión, innovación de producto e internacionalización.

Baste como ejemplo la reciente firma de dos convenios entre la Diputación y AFM por un importe de 150.000 euros para potenciar la presencia de este sector en Asia. De hecho, uno de los acuerdos servirá para ayudar a crear centros de formación en China e India.

Este país, hace 25 años, al recuperar los instrumentos de autogobierno, decía de manera clara que era un país industrial, que quería seguir siéndolo y que hacía esa apuesta tanto por consolidar los sectores tradicionales como por la aparición de nuevas actividades para diversificar el tejido industrial.

Todo esto no hubiera sido posible sin un compromiso y una intensa colaboración interinstitucional entre Gobierno Vasco, diputaciones y ayuntamientos, más allá de los ámbitos competenciales de cada uno.

Fruto de este compromiso compartido y de la capacidad de las instituciones vascas para diseñar sus propias políticas industriales hemos superado otras crisis, hemos alcanzado importantes niveles de competitividad y desarrollo y nos hemos dotado de una estructura industrial y económica que hoy nos coloca, sufriendo la crisis sí, pero mejor preparados para aguantar, tomar las medidas necesarias y afrontar el futuro.

Beraz, azken ondorio garbi bat: Jarraitu beharra daukagu autogobernua sakontzen, autogobernua erabakitzeko ahalmena delako; baita, jakina, gure industria politikak erabakitzeko edo ikerketa, garapen eta berrikuntzarako politikak erabakitzeko ere. Honek guztiak, azken batean, garapen aurreratuagoa, oparotasun handiagoa eta herritar guztientzako bizi-kalitate hobea dakartzalako.

Eskerrik asko.

